

azpeitian zer?

udal aldizkaria

186. zenbakia



2020KO ERRONKAK: EKONOMIA, GIZARTE BABESA, BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK ETA HERRIGINTZA

Azpeitiko Udalak abenduaren 3an onartu zituen 2020rako aurrekontuak; 25.837.143€ko aurrekontu orokorra izango du



ELKARRIZKETA:

Nagore Alkorta
alkateari
elkarrizketa.



azpeitiko udala
denon artean



TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gaske Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75



BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Urtarrilaren 8, 11, 12, 17, 21 eta 28

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Urtarrilaren 3, 7, 13, 20 eta 27

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Urtarrilaren 2, 4, 6, 16, 24 eta 30

BERISTAIN

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Urtarrilaren 10, 14, 18, 19, 23 eta 29

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Urtarrilaren 1, 9, 15, 22, 25, 26 eta 31

ALE HONETAN ZER?

Azpeitia ezagutzen	2
Elkarrizketa	3
AURREKONTUAK	8
Proiektuak	10
Denon Artean	14

- Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
- Egilea: Prentsa bulegoa
- Ale kopurua: 7.000 • L.G: SS - 1148/91

AZPEITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN

Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera izango dugu aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!



HIRIAREN GARAPENA



Azpeitiko kaskoak beste herri batzuek baino hobeto zaindu zuen Erdi Aroko planta, baina urte asko lehenagotik zegoen eraitzita harresia eta zabaltzen ari zen herria; kalea ari zen bereganatzen ordura arte baserriek, soroek eta baratzeek hartzen zituzten eremuak. Alde Zaharrean bertan hainbat etxe bota zituzten berriak eraiki ahal izateko. Ezagunena Bikuña etxea, lehengo Santa Ana plazan eta oraingo Perez Arregi Enparantzan. Orube hori Erdi kale barrenean zegoen eta tunel bat zuen Enparan kaleari bide emateko.

Okindegia, taberna eta kotxeen galeakua egon ziren bertan, 1923an eraitsi zuten arte. Orain bertan dagoen etxean, karlisten elkarteak egon zen, ondoren Telefonikaren egoitza eta egun hainbat kultur elkarteren kokalekua da.

XIX. mendean beste zenbait aldaketa ere egin ziren: garbitokia egin zen 1842an eta handik hamar urtera Done Jakue kalea ireki zen. Azken kale hori irekitzeko Elizkaleko etxe batzuen atzeko aldea bota zuten.

“ORAIN ARTEKO AURREKONTU HANDIENA ETA SOZIALENA IZANGO DU AZPEITIAK 2020AN”



Sei hilabete eskas pasatu dira Nagore Alkorta Azpeitiko alkate izendatu zutenetik. Hilabete hauetan, herritarrak hartu, kargu berria ezagutu, jendearekin hartu-emanen hasi, erakunde desberdinekin harremanetan jarri eta bilerak egin... gauza berri asko egin behar izan ditu. Hasiera guztietan bezala, oraindik ere ardura berria bere egiteko prozesuan da, baina lanari eta ardurari ez dio beldurrik.

Azken asteotan, lan ugari eta ardura handia eskatu dio gai batek: 2020ko udal aurrekontuak osatzeko lanean aritu da buru-belari. Abenduaren 3ko ohiko plenoan onartu zituzten aho batez, eta “gustura” dago emaitzarekin, eta aurrekontuak osatzeko eginiko bidearekin.

Maiatzaren 26an Udal Hauteskundeak irabazi ostean, ekainaren 15ean hartu zenuen Azpeitiko alkate kargua. Sei hilabete pasatu dira ordutik, zer moduz sentitu zara hilabete hauetan?

Nik aurretik udaletxeetan urte askoan egin dut lan eta ezagu-tzen nuen instituzioaren barruko eguneroko martxa. Udal langileek zein gure taldeak asko lagundu didate hasiera honetan. Lantalde prestatua dugu, ideia berri eta argiekin, eta herriaren alde lan egiteko gogo izugarriarekin. Hori ere transmititu egiten da, eta hori koordinatzea eta gidatzea lana da, baina gustura egiten den lana.

LANTALDE PRESTATUTA DUGU, IDEIA BERRI ETA ARGIEKIN, ETA HERRIAREN ALDE LAN EGITEKO GOGO IZUGARRIAREKIN

Kargua hartu eta egun gutxira, udal langileekin eta herriko eragileekin bilerak egin zenituzten.

Niretzat oso garrantzitsua izan zen lehen hartu-eman hori. Udal langileak ezagutzen ninduten, bazekiten nor



nintzen, eta nik ere banekien bakoitza nor den, baina bilera batean, aurrez aurre, adierazi nahi nien gure elkarlanerako asmoa.

Herriko eragileen bilera, berriz, gure elkarlanerako konpromisoa berresteko hitzordua izan zen. Guretzat garrantzitsua da herriko taldeek egiten duten lana errekonozitu eta balioan jartzea. Bide batez, eskertu nahiko nieke talde horietako partaideei egiten duten lana.

Herritar ugarik erantzun zioten gure deialdiari, eta gustura gelditu ginen. Ordutik, eragile eta norbanako askorekin elkartu gara kontu desberdinak lantzeko, eta eskertzekoa da herritarrek herriaren alde egiten duten lan guztia. Aberastasun handia dugu herritarretan.

Agintaldiko lehen aurrekontuak onartu dituzue, aho batez.

Lehen erronka handienetakoa izan da. Azken aste eta hilabeteetan horrekin aritu gara. Abenduaren 3an onartu genituen eta urte hastearekin bat indarrean izango dira, eta hori ga-

rrantzitsua da eguneroko lanetarako. Herritarren beharretara egokitutako aurrekontuak osatzea izan da gure helburua. Herritarrek dira gure politiken erdigunea. Azpeitiarrek egunetik egunera bizi kalitate hobea izan dezaten egingo dugu lan.

Egunerokoari begiratzeari utzi gabe, Azpeitiaren etorkizuneko erronken korapiloak askatzen hasteko neurriak hartzeko garaia ere badela uste dugu. Eta asmo horrekin osatu ditugu aurrekontuak.

**DENON AZPEITIA
ZAILTASUNAK DITUZTEN
HERRITAR HORIEK BABESTETIK
ABIATZEN DA. GAUR ZAILTASUNAK
HERRITAR BATZUK DITUZTE,
ETA BIHAR, AGIAN GEUK
IZANGO DITUGU**

Hogei milioi baino gehiagoko udal aurrekontua onartu da.

Bai, hogei milioiko langa gainditu dugu udal aurrekontuetan, lehen aldiz. Orain arteko aurrekontu handiena eta sozialenak izango du Azpeitiak 2020an.

Arduraz osatu ditugu aurrekontuak. Eta prozesu horretan herritarrekin, eragileekin, arloetako mahaiekin, udal teknikariekin eta arduradun politikoe-kin egin dugu lanketa. Herritar guztien alkatea naiz, eta herritar guztion udala kudeatzen dugu, eta herritar guztiei eman nahi izan diegu aukera iritzia emateko.

Egoera ekonomiko ona duela Udalak aipatu izan duzu.

Halaxe da. Egoera ekonomiko ona du Azpeitiko Udalak, eta hori aurreko udal gobernuak egindako kudeaketa arduratsu eta zorrotzaren ondorioa dela uste dut. Gure helburua kudeaketa modu horri jarraitzea da, beharrezko zerbitzuak eta inbertsioak eginez, baina diru publikoaren gaineke kontrola eramanez.



Aurrekontuetan, zer azpimarratuko zenuke?

Denontzako lekua izango duen Azpeitiaren alde egin nahi dugu. Denontzat gobernatu nahi dugu, beti ere, herritarrek guztiaren erdigunean jarrita. Denon Azpeitia zailtasunak dituzten herritar horiek babestetik abiatzen da. Gaur zailtasunak herritar batzuk dituzte, eta bihar agian, geuk izango ditugu. Sektore bulnerable desberdinak ditugu herrian, egoera ekonomiko larrian daudenak, gazte prekarioak, menpekotasunen bat duten pertsonak, pentsio eskasa duten adinekoak, alargunak...

Neurri aurrerakoiak hartu dira azken urteotan, eta esan dezakegu inguruko gizarte babes onenetakoa eskaintzen duela Azpeitiko Udalak, gaur egun. Babes neurri horietako batzuk dira etxebizitzaren alokairurako laguntzak, 1.080€ arteko konpentsaziorako laguntzak, emergentziarako laguntzen osatzea, etxez etxeko laguntzak, formaziorako bekak... Gizarte babesaz ari garenean laguntza horiez ari gara, edota Gautenak Azpeitian bere zerbitzuak eskainiz autismoa duten herriko zein eskualdeko pertsona horien zein

beren familien bizi kalitatea hobetzeaz ari gara. Inoizko aurrekontu sozialenak esaten dugunean horretaz ari gara, zailtasunak jasan ditzaketen kolektiboak laguntzeaz, laguntza, baliabide eta zerbitzuen bidez

**LAU ERRONKA NAGUSIARA
LABURBILTZEN DUGU EGIN NAHI
DUGUNA: EKONOMIA SUSTATU,
GIZARTE BABESA INDARTU,
ETXEBIZITZA PUBLIKOEN ESKAINTZA
ETA HERRIGINTZA**

Aurrekontuak osatzerakoan, epe luzerako zenbait gairi helduko diotzue adierazi duzu.

Aurrekontuen bidez, 2020an gauzatzeko proiektuak eta zerbitzuak aurreikusitakoak eta zehaztu ditugu. Baina badira beste hainbat gai heldu beharrezkoak gure ustez. Horien emaitzak ez dira 2020an ikusiko, ezta epe laburrean ere seguruenara, baina heldu

egin behar zaielakoan gaude. Hor aipatu izan ditugu, adibidez, lur industrialen edo adinekoen zerbitzuen inguruko lanketa. Epe luzeragoko lanketa eskatzen dute; ikerketak egitea, aztertzea, beste erakundeekin hitz egin eta adostea... ikusten ez den lan asko izaten da gai horien atzean, baina horiei heltzeko garaia dela uste dugu, lan horretan ari gara eta aurrekontuetan konpromiso hori islatu dugu.

Zein dira zuen lehentasunak?

Guk lau erronka nagusi ditugula esan ohi dugu. Aurrekontuetan islatu den bezaka ekonomiaren sustapena eta gizarte babes lehentasunezko arloak dira guretzat, etxebizitzaren bezala. Herritarren bizi kalitateari erabat lotutako arloak dira, eta guk Azpeitiko herritarrek duintasunez bizitzeko gutxienekoa izateko lanean dihardugu arlo horietan. Laugarren hankari, herrigintza deitzen diogu. Guztiontzako gobernatzen dut, eta guztiontzako egokia den herri bat izatea nahi dugu Azpeitia. Herri bizia da Azpeitia, inurri lanean herriko talde eta dinamiketan dabilen jende ugari dugu, eta guztiok batuta Azpeitia hobeago baten alde lan egitea da gure erronka.



Zer neurri hartuko dituzue ekonomia sustatzeko?

Udalak berez, ez du ekonomiaren sustapenerako eskumenik, baina Udalaren egitekoa da herriko erronkei erantzutea. Urte ezegonkorak izan dira ekonomia eta lan munduari dagokionez. Horrek eragin desberdinak izan ditu, esaterako lur industrialen galera. Krisiaren azarnak ikus ditzakegu gaur egun industriaguneetan, pabilioi huts eta zaharkituak dira urte gogorren ondorioa. Horri buelta ematea konplexua da esku pribatueta dauden azpiegiturak direlako, eta epe luzera egin beharreko kontua da. Epe luzerako estrategiaz landu behar dira, guk, hasteko, merkatu ikerketa bat jarri dugu abian, egoeraren inguruko datuak jasotzeko. Aurrekontuetan, berriz, industriaguneen inguruko plan berezia garatzeko diru partida bat jarri dugu.

Ekonomiaz ari garenean, ordea, sektoreen arteko orekaz ere ari gara. Industria da herriaren motorea, enplegu gehien duen sektorea, baina lehen sektorean eta merkataritzan ere proiektu interesgarriak ditugu. Azoka plazaren bidez, bertako produktuen inguruko proiektuak indartzen eta aukera bada

sortzen jarraitzeko konpromisoa dugu, eta merkataritzari dagokionez, datoren urtean Bertanekin elkarlanean osatutako proiektu berri bat jarriko dugu martxan.

**AURREKONTUETAN
INDUSTRIAGUNEEN
INGURUKO PLAN BEREZIA
GARATZEKO
DIRU PARTIDA BAT
JARRI DUGU**

Sustapen ekonomikorako laguntzak mantenduko dira, baina al-daketak eginda. Zertan datza al-daketak?

Sustapen ekonomikorako laguntzak onartu zirenean, Azpeitia egoera ekonomiko larran zegoen. Enpresa asko itxi ziren, tartean enpresa handiak, eta herritar ugari langabezian zeuden. 2013ko hirugarren hiruhilekoan, adibidez, langabezia tasa %17,14ko zen. Aurten, iraileko langabezia tasa

%7,6koa izan da. Baina tasa horri lupa jartzea dagokigu guri. Gizonen langabezia %5,2koa da, esan dezakegu egiturazkoa dela ia; hau da, kualifikazio kontua dela. Emakumeen langabezia, berriz, %10,4koa da. Beraz, hor jarri beharra daukagu arreta.

Eragile sozioekonomikoak dira enpresak. Ekonomian eragin handia dute, baina baita gure gizartean ere. Ekonomia sozializatzeko, herritartzeko ahalegina egin behar dugu.

Bide horretan, gaur egungo egoera egokituko ditugu 2020ko deialdirako oinarriak, eta ekintzaile berriei beren ideia garatzeko eta aktibitate ekonomikoa martxan jartzeko laguntzeko, enpresa txikien digitalizazio bultzatzeko, enpresetan berdintasun planak ezartzeko eta energia berri tagarrien ezarpenarako laguntzak emango dira.

Ekonomia eta babes sozialaz gain, etxebizitza publikoen eskaintzari ere garrantzia berezia eman diezue.

Herrian dagoen etxebizitza premiari irtenbidea emateko neurriak hartzen jarraitu dugu. Uztaillean, agintaldi berria



hasi eta segituan, orain gutxi bukatu den Esklabak Iturzulo eremuko lehen faseko etxebizitzak eraikitzeke lehiaketa publikoa jarri genuen abian. Aurrekontuekin batera, sei hilabete hauetan hartu dugun erabakirik eta prozedurarik garrantzitsuena izan da hori.

Etxebizitza bat eskuratzeko eragin handia du pertsona edo familia baten ekonomian. Guk azpeitiarrak herrian bizitzen gelditzea nahi dugu, horretarako ezinbestekoa da etxebizitza eskuratzeko aukera izatea. Guk molde eta prezio desberdinetako etxebizitza eskaintzak abian jartzea dugu helburu, herritarrak Azpeitian eta bizi kalitate onean bizitzeko aukera izateko.

Ekonomia, gizarte beharrak, etxebizitzak... arlo horietan Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana ezinbestekoa izango da, ezta?

Udala herritarrengandik gertuen da goen erakundea da. Herritarrekin harreman zuzenena guk dugu, eta beharren jakitun ere gu izaten gara lehenengo. Beharra detektatuta, udalen eskumena ez den kasuetan elkarlana ezinbestekoa da. Hilabete haue-

tan, foru diputatu zein sailburuekin harremanak eta bilerak egin ditugu. Lehen bilera horien balorazio positiboa egiten dugu, hasiera ona eman diogu, eta bide horretan jarraitzeko asmoa dugu.

HERRIA GUZTIOK EGITEN DUGU, ETA HERRIGINTZAN UDALA ERE PUZZLEAREN PIEZA GARRANTZITSUA DELA USTE DUT, BAINA TALDE ETA BOLUNTARIO GABE, AZPEITIA EZER GUTXI LITZATEKE

Herritarrekin eta taldeekin duzun harremana ere izugarria da.

Herriko eragileen dinamika izugarri hazi da, azken urteotan. Kultur eragileena da nabariena ziurrenik, eta horrek isla izan du aurrekontuetan ere. Herria guztiok egiten dugu, eta herrigintzan Udala ere puzzlearen pieza garrantzitsua da uste dut, baina talde eta boluntario gabe,

Azpeitia ezer gutxi litzateke. Azken urteotan uste dut jakin dela pieza osatzen; eragileak gauzak egiteko gogoz daude, eta Udalak jakin du baliabide ekonomikoak eta bestelakoak herritarren eskura jartzen. Dinamika horietatik abiatuta sortu da Soreasuko Dinamoa Sormen gunea, adibidez. Eta horrelako azpiegitura eta dinamikak aurrekontuen bidez indartzea dagokigu. Uste dut, bide horretan, elkar hartuta jakin dugula egokitzen, bai herri eragileek eta baita Udalak ere.

Elkarlana aipatzen duzu behin eta berriz, garrantzitsua da zuretzat, ezta?

Herria guztiok osatzen dugu. Guk herri solidario eta inklusibo batean sinesten dugu. Hori da gure eredua eta balore horietan oinarritutako herri bat eraikitzeak du guretzat zentzua. Balore horiek egingo daituzte herri, eta herri nortasuna izateari, komunitate bat izateari garrantzia berezia ematen diot. Gero eta individualistagoa den gizarte honetan, arazo askori aurre egiteko herri, komunitate, izan behar dugula uste dut. Horrek batu baino biderkatu egingo gaituelako.



20.246.218€KO AURREKONTUA IZANGO DU AZPEITIKO UDALAK 2020. URTEAN

**AZPEITIKO UDALAK ABENDUKO PLENOAN ONARTU ZITUEN, AHO BATEZ, 2020. URTEKO AURREKONTUAK;
25.837.143€KO AURREKONTU OROKORRA IZANGO DU, 2019AN BAINO IA MILIO BAT GEHIAGO**

Onartu berri ditu 2020. urterako aurrekontuak Azpeitiko Udalak. Abenduaren 3ko ohiko plenoan, urtea bukatu aurreko azken ohiko plenoan, onartu zituzten, aho batez. “Garantziatsua da gure ustez urtea bukatu aurretik aurrekontuak onartuta izatea, horrela urtea hastearekin bat indarrean izaten dira aurrekontuak, proiektuak gauzatzeko”, adierazi du Leire Goenaga Ogasun batzordeburuak.

Aurrekontua handitu egin da eta hori Udalak duen egoera ekonomiko “onaren” seinale dela azpimarratu zuen: “Azken urteotako gestio zorrotz eta onak, aurrera begirako aurrekontuakosatzea ekarri du”. Hala ere, “diru pu-

blikoa zuhurtziaz inbertitu behar dugu, eta herritarren beharrei egokitutako aurrekontuak osatzen saiatu gara”, azaldu zuen.

**DIRU PUBLIKOA
ZUHURTZIAZ INBERTITZEN
SAIATUKO DA UDAL GOBERNUA
ETA HERRITARREN BEHARREI
EGOKITUTAKO AURREKONTUAK
OSATZEN SAIATU DA**

Udal aurrekontuak ia milioi erdi egin du gora, eta 20 milioitik gorako aurrekontua izango du datorren urtean. Aurrekontu kontsolidatuari erreparaturaz gero, beriz, 2019an baino milioi bat gehiago izango du. Herritarrak erdigunean jarritako politikak egin nahi dituzte eta herritarren bizi kalitatea egunetik egunera hobetzen joateko eta beharrei egokitutako kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzea du helburu.

Orokorrean, arlo guztietan egin du gora aurrekontuak. Igoera nabarmenena, ordea Gizarte Babesean eta ekonomian eman da. Udal Gobernuaren ardatzak dira horiek eta ahalegin berezia egin du arlo horiek indartzeko datorren urtean.



Udalaren aurrekontu propioa
20.246.218 €

Udalaren aurrekontu orokorra
25.837.143 €

Euskara Patronatua
642.812,84€

Kirol Patronatua
1.443.073,39€

Azpeitia Berritzen
4.509.32€

Udalaren aurrekontu orokorra
25.837.143 €

Ogasuna eta kontuak
476.556,85€

Hirigintza eta ingurumena
2.152.000,00€

Hezkuntza eta euskara
1.002.712,84€

Kultura eta gazteria
1.000.000€

Kirola
922.973,39€

Gizarte zerbitzuak
2.101.976€

Langileria eta antolakuntza
5.856.794,20€

Festak
549.000€

Zerbitzu orokorrak
3.892.479,53€

Alkatetza
441.000€

Ekonomia, enplegua eta formazioa
1.317.725,21€

Parekidetasuna
202.000€

Baserriak
331.000€

Guztira
20.246.218,02€



2020AN GARATUKO DIREN PROIEKTUAK, ARLOZ ARLO

Azpeitiko Udalak 25.837.143€ ko aurrekontu orokorra izango du, eta diru horrekin arlo bakoitzean gauzatuko dituen proiektuak zehaztuta ditu. Hala ere, Udalak beste hainbat erakundek eskaintzen dituen diru laguntza jasotzeko ahalegin berezia egiten du: “Udalak aurreikusita dituen sarreraren arabera gastuak eta proiektuak zehaztuta ditu. Hala ere, beste hainbat instituzio eta erakundek ateratzen dituen diru-laguntzetara aurkeztu jarraituko dugu. Horiek jasoz gero, herria hobetzeko diru eta baliabide gehiago izango ditugulako horrela”, zehaztu du Nagore Alkorta alkateak.



GIZARTE BABESA

Herritarrak dira Azpeitiko Udalaren lehentasuna, eta okerren pasatzen ari diren sektoreei begirako politikak iraunkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartu du aurrekontuen bidez:

“ Menpekotasuna duten pertsonak, langabezia daudenak, gazteak, prekaritatean bizi direnak, arazo ekonomikoak dituztenak... Gizartearen babesa modu batera edo bestera behar dutenetatik abiatuta egin nahi da.

**HERRITAR OROK
DUINTASUNEZ BIZITZEKO
DITUEN BEHARREI AURRE EGITEKO
BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK
ESKANTZEA BERMATZEA IZANGO
DU HELBURU UDALAK**


Herritar orok duintasunez bizitzeko dituen beharrei aurre egiteko baliabideak eta zerbitzuak bermatzea izango da Udalaren helburua: “Perfil desber-

dinetako herritarrei zuzenduriko laguntza eta zerbitzuak eskaintzen dira Gizarte Zerbitzuen bidez. Alde batetik, menpekotasun egoeran dauden zuzenduriko etxez etxeko laguntza indartuko dugu. Gero eta herritar gehiago dira zerbitzu hori erabiltzen dutenak, eta guk beharra duen guztiek zerbitzua izateko igoko dugu aurrekontua”, azpimarratu du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

Horretaz gain, okerren pasatzen ari direnei zuzenduriko diru laguntzen poltsa ere indartu dute: “Emergentzia laguntzak Eusko Jaurlaritzak bideratzen ditu, baina dirua gastatuta ere guk eskaerei erantzuten jarraitzen dugu. Eskari horiei erantzuteko igoko dugu aurrekontua. 65 urtetik gora herritarrei 1.080€ko diru sarrerak bermatzeko diru laguntza iaz indartu egin genuen eskaera guztiei erantzuteko, eta ia-zko kopuru bera mantenduko dugu. 200.000€, beharrezkoa ikusten du-



gulako". Laguntzaz gain, zerbitzuak ere indartu egingo dira, hala, eguneko unitatea eta etxeko zerbitzua indartzeari garrantzia berezia eman zaio.



Arlo honetako aurrekontuak %30 egin du gora iaiztik. Langabezia datuak onak dira, ez gara iritsi krisi aurreko %5eko langabezia tasara, baina %7,6 da, azken datuen arabera, EAEko langabezia tasa baino 3 puntu baxuagoa: "Hala ere, lanaren kalitatean eragitea lortu nahi dugu, eta horretarako hainbat neurri hartuko ditugu. Horretaz gain, ekonomian momentu desegonkorak bizi ditugu, eta haizea kontra jartzen bada, behar diren neurriak hartzeko alertan gaude", zehaztu du, Leire Goenaga Ogasun zinegotziak.

Arlo horretako neurri zehatzei dagokionez, lur industriaren gaiari helduko dio Udal Gobernuak: "Industria da

herriko ekonomiaren motorea eta bide horretan, ehun industriaren azterketa jarri berri dugu martxan", horretarako 200.000€ko partida jarri dute herriko industriaguneen plan berezia egiteko.

Sustapen ekonomikorako dirulaguntzak ere berritu egingo dituzte: "Buelta bat eman diegu eta datorren urtean, ekintzaile berriei beren ideia garatzeko eta aktibitate ekonomikoa martxan jartzeko laguntzak, enpresa txikiei digitalizazio bultzatzeko, enpresetan berdintasun planak ezartzeko eta energia berriztagarrien ezarpenerako laguntzak emango dira", zehaztu du.

Horretaz gain, herriko merkatariekin elkarlanean jarraituko dute eta elkarlanean landutako proiektu berri bat jarriko dute abian.

Formazioari dagokionez, Basazabalen unibertsitateekin zein bestelako eragileekin elkarlanean formazio eskaintza zabala egingen jarraituko da.



KIROL PLANA

Kirolak garrantzia handia du herritarren zati handi baten egunerokoan. Begiratu besterik ez dago herriko edozein txokotara, hori nabaritzeko. Kirol eragile ugari antolatuta daude, eta azpiegiturak ere ondo funtzionatzen dute.

2020rako kirol arloa aztertu eta indargune zein ahulguneak detektatzeko kirol plana egitea aurreikusten dute: "Kirol planarekin gaur egun dugun egoeraren inguruko azterketa egitea da. Plan horretan ondorio batzuk aterako dira, eta hortik abiatuta egin beharko ditugu hobekuntza eta aldaketak", zehaztu du Egoitz Arruti Kirol Batzordeburuak.



PAREKIDETASUNA

Parekidetasunean, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko



politikak lantzeko ertz askotako lanketak egingo dituzte. Bide horretan, ikastetxeekin elkarlanean egiten diren hezikidetza inguruko lanketa eta proiektuak bere horretan mantenduko dira.

Festetan egiten den indarkeria matxistaren lanketak ere eragin positiboa duela uste du Udalak eta horri ere eutsi egingo dio.

2020rako, ordea, badute ohikoez gain, beste proiektu interesgarri bat: "Emakumeek historian okupatu izan dituzten espazio publikoen inguruko azterketa egiteko asmoa dugu", zehaztu du Idoia Arrizabalaga Parekidetasun batzordeburuak. Historian, emakumeen langintzen bidez okupatutako espazioen inguruko testigantzak bildu nahi dituzte, ondoren, ezagutarazteko.



2020rako kultur aurrekontuak %18 egingo du gora: "Herriko taldeek egiten duten lana eta duten dinamika

izugarria da. Taldeen urteko ekintzak egiteko baliabideak eta azpiegiturak bermatzen da gure zeregina, eta horretan 'arratuko dugu', adierazi du Eneko Albizu Kultura batzordeburuak. Horretaz gain, martxa hartzen hasi berri den Soreasuko sormen gunea indartzeko asmoa ere badute: "Soreasuko sormen gunea, gutxiatik gehiagora dao. Aurtun abiatu egin da, eta datorren urtean bertan ikastaro, ekintza eta beste-lakoak antolatzeko diru partida bat jarri dugu, jarri dugu, hain zuzen, herritarren sormenera bideratutako diru laguntza poltsa handitu da", gaineratu du.



MEMORIA ETA BIZIKIDETZA

Memoria historikoa eta memoria hurbilaren azterketan langa bat jarri du duela hilabete eskas Udalak. Azaroaren 20an, Azepeitza 1945-1975. Giza eskubide urraketak eta errepresioa diktadorea hil artean liburuak aurkeztuz. Liburu hau izan da 36ko Gerratik gaur egun arteko Azepeitian eta azepeitiarrek jasandako giza eskubide urraketak ikertu eta bildu dituen azken liburuak.

Azken urteetan Aranzadi Zientzia Elkar-tearekin elkarlanean aritu da Udala egia, justizia eta erreparazioaren baitan lanean: "Egindako bidea aurrera begirakoaren oinarria izango da. Azepeitiaren eta azepeitiarren egia bildu dugu, eta hori oinarri hartuta jarraituko dugu lanean, bizikidetza sustatzen", zehaztu du Nago Alkorta alkateak. Horretarako, aranzadiarekin elkarlanean jarraituko du, eta epe laburrean bi erakundeen arteko hitzarmena sinatuko dute.

**EMAKUMEEK HISTORIAN
OKUPATU DITUZTEN ESPAZIO
PUBLIKOEN INGURUKO AZTERKETA
EGINGO DA 2020AN**



GAZTERIA

Herriko gaztetxoek beharrak eta nahiak ezagutzeko prozesua egiten ari da Udala. Gaztetxoek behar eta nahiak ezagututa, horiei erantzuna emateko konpromisoa du Udalak, ahal duen heinean, behintzat: "Gazteak udaletxeko jardunetik urruti gelditzen dira sarri, horregatik erabaki genuen inkesta bidez eta bide bat urratu eta elkarren arteko zubiak eraikitzeke. 2020an izango ditugu emaitzak eta eskaerei helduko diegu", zehaztu du Ainara Larrañaga Gazteria zinegotziak.

Horretaz gain, Ludoteka eta Gaztelekuko ohiko dinamikaz gain, udal udaleku irekiek gero eta arrakasta handiagoa dute. Azken urteetan gero eta haur gehiagok ematen dute izena, eta haur guztiak hartzeko beharrezko diren baliabideak jartzen jarraituko du Udalak.



HIRIGINTZA

Hirigintzari dagokionez, herrian hainbat urbanizazio lan eta hobekuntza egitea aurreikusi da, herritarren bizi kalitatean eragina dutelako zuzen zuzenean. "Herriko gune guztiak irisgarriak eta denontzako toki erosoak izatea nahi dugu. Horretarako herriko auzo desberdinetan behar diren neurriak hartzen jarraituko dugu", adierazi du Josu Labaka Hirigintza zinegotziak. Hirigintzako inbertsioetarako bi milioi euroko aurrekontua izango du 2020an Udalak.

Etxe Alai eta Arana auzoen irisgarritasuna aztertuko da eta hobetzeko neurriak hartu. Garate Anaia auzoko urbanizazio obrak ere egingo dira.

Urrestillako bidegorria bukatzeaz dago, Herriko bidegorri sarearekin lotzeko falta den Landetako lotunea egingo da.

Alde Zaharrean, Alberdi Eneako parkin publikoa ere abian jarriko da datorren urtean, ondo bidean.



AUZOAK

Landa eremukoak egunerokoa errazteko urtez urte auzoetan auzotarrek inkesta adostutako berrikuntza eta obrak egin ohi dira. Auzo bakoitzaren gabeziei eta arazoei irtenbidea emateko modua biltzen saiatzen da Udala.

Auzo guztietako arazo nagusia garraio publikoa izan ohi da, eta horri irtenbidea eman asmoz auzotaxia abian jartzeko azterketak egiten ari da Udala: "Garraio publikoa eta autobus lineak indartzeko saioak egin izan ditugu, datorren urtean auzotaxia abian jartzeko asmoa dugu, auzoetarako garraio zerbitzua hobetzeko", adierazi du Aitor Bereziartua zinegotziak.

**HERRIKO GUNE
GUZTIAK IRISGARRIAK ETA
DENONTZAT EROSOAK IZAN
DAITEZEN NEURRI DESBERDINAK
HARTUKO DIRA AUZOETAN**



EUSKARA

Azpeitia herri euskalduna da, eta euskararen ezagutza eta erabilera herritarren artean gora egin dezan, Azpeitiko Udalak Euskara Patronatura bideratzen duen diru poltsa handitu egingo du. Hala, 2020an, 642.812,84 euroko aurrekontua izango du. Euskaltegiaren ohiko funtzionamendua bermatuko

da aurrekontu horrekin: "Euskaltegiaren euskara irakasteko pedagogia berritzailea jarri da martxan, eta emaitza onak ematen ari da. Bide horretan jarraituko dugu, maila guztietako euskara ikasteko eskaintza ematen", adierazi du Eneritz Albizu Euskara batzordeburuak. 2020a bukatzerako, Euskaraldiaren bigarren edizioa egingo da, eta horri jarriko diu indar bereziak udalak, herriko enpresa eta eragileekin elkarlanean.

Horrez gain, enpresetan euskara planak egiteko eta sustatzeko Elegune programa indartuko da: "Eleguneraren bidez herriko enpresei euskara planak garatzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzen diegu. Horretarako teknikari baten laguntza eskaintzen zaie enpresei. Zerbitzua emaitza onak ematen ari da, eta indartu egingo dugu", gaineratu du.



INGURUMENA

Naturaz inguratutako lekua da Azpeitia, eta Azpeitiko Udalak garrantzia handia ematen dio ingurumenaren zaintzari eta sentsibilizazioari. Azken urteetan hondakinen inguruan eman dira pausorik garrantzitsuenak. Lapatxa zabortegia itxi zen 2017an, eta behin betirako klausuratzeko prozesuak eta lanak aurrera ematen ari dira: "Pauso garrantzitsua izan dira, alde batetik, Lapatxa zabortegia ixtea bera, eta, bestetik, herrian hondakinen bilketa sistema aldatu eta herritarrok hondakinak gutxitu, gaika sailkatu eta berrerabiltzeko egin dugun saltoa", adierazi du Aitor Bereziartua Ingurumen zinegotziak.

Berdeguneak eta Urola ibaia balioan jartzeko konpromisoa ere badu: "Berdeguneen zaintzan salto handia eman dugu, eta bide horretan, Goenako parkea egokitzeko asmoa dugu", zehaztu du. Horretaz gain, herritar zein bisitarientzat erakargarri izan daitekeen Xaguxatarren ibilbidea gauzatzeko asmoa du 2020an Udalak.



HERRITARREN EKARPEN ETA PROPOSAMENAK JASO DIRA AURREKONTUAK OSATZEKO

AZAROAN EGIN ZUEN UDALAK DENON ARTEAN PROZESUA ETA, AZKEN URTEETAN BEZALA, HERRIKO LANDA EREMUKO AUZOETAN BILERAK EGITEAZ GAIN, HERRIGUNEA HOBETZEKO EKARPEN, IRITZI ETA PROIEKTUAK JASOTZEKO POSTONTZIAK ETA E-POSTA ERE JARRI DIRA

Aurrekontuak hurrengo urtean herrian izango denaren isla dira, eta horren jakitun, Azpeitiko Udalak duela 7-8 urtetatik herritarrekin batera osatzeko 'Denon Aretan' prozesu parte hartzailea jartzen du abian.

Aurtengoan ere, azaroan jaso ditu herritarren ekarpenak Udalak. Prozesuak eman duenaren "balorazio positiboa" egiten du Josu Labaka parte hartze zinegotziak. "Urtero herritarren parte hartze bidez egiten den prozesua da 'Denon artean'. Udalak proiektu guztiak eragiten dien herritar edo eragileekin lantzen ditu; elkarlanana handia da egunerokoan". Aurrekontuen lanketan, ordea, ahalegin berezia egiten du.

**AUZOETAKO BILERETAN
JASOTAKO EKARPENEZ GAIN,
BESTE 40 EKARPENETIK GORA
JASO DITU UDALAK ONLINE
ETA POSTONTZIEZ BIDEZ**

Herritarrek ekarpenak egiteko bide desberdinak izan dituzte: arlokako mahaietan landu dira, auzoetako bilerak egin dira eta ekarpenak egiteko aukera jarri da online eta postontzien bidez.

Gogorarazi du herriko arlo desberdinetako eragileekin mahaian bidez edo egiten dituzten beste hainbat bileraren bidez harreman zuzena dutela: "Eragileen eta Udalaren arteko zubiak eginda daude, elkarlanean hamaika proiektu ditugu abian eta kirol edo kultura mahaiekin ere sintonia onean ari gara elkarlanean", adierazi du.

Herritarrek beren eskaera edo ekarpen zehatzak egiten dituzte: "Normalean, eskaera zehatzak egiten dizkugute, eta aurrean ere horrela izan da", zehaztu du Labakak. Orain eskaerak aztertzen ari dira, eta ahal den heinean azaldutako arazoak konpondu eta ekarpenak aztertu eta egingarriak direnak abian jartzeko.





Gabon Zoriontsuak eta
Urte Berri On
2020



azpeltiko udala
denon artean